



Urriaren 2an Lan Osasuneko Komiteko kideok udazkeneko ohiko bilera izan genuen. Jorratu genituen gai guztiak konponbiderik eman ez zaien aferak dira:

- **BILBOKO ZAINZA EPAITEGIA.** Lan Inspekzioak egindako errekerimenduari heltzen hasia da Prebentzio Zerbitzua –prebentzioko delegatuek egindako salaketaren haritik- non Bilboko Zaintza Epaitegia osatzen duten lanpostuetako arrisku psikosozialak nahiz lan arriskuak ebaluatu behar diren. Forentse taldeari lan arriskuen gaineko ebaluazioa egiten hasi nahi zaio, geroago gainontzekoekin jarraitzeko: Fiskaltzako, Dekanatoko eta Instrukzio Epaitegiko langilegoa.
- **BIZKAIKO FISKALTZA.** Gutxi barru zamalanak egiteko erak ebaluatu egingo dira INHST-ko aplikazio baten bitartez, eta nork bere bizkarra zaintzen ikasteko ikastaro bat antolatu egin dute. Honetara Fiskaltza guztietako lankide ugari apuntatu dira iada. Honek agerian jartzen du langileen keka haien osasunarekiko, zerbitzuan lanaren antolaketa kaxkarra baita. LAB-ek eskatu zituen berriz Bilboko Fiskaltzako lankideei IMQ-n egindako mediku azterketen/elkarrizketen emaitzak. Ez zaigu batere gustatzen nola administrazioak gorrarena egiten duen, badirudi txosten hauek ahaztuko ditugula espero dutela. Zuzendariak begiratuko zutela esan zuen.
- **DURANGOKO KLIMATIZAZIOA.** Bi zuzendariak pozik agertu ziren obren lizitazioaren iragarkia argitaratzea lortzearekin, baina kontutan izar behar dugu arazoa 2013ko neguan hasi zela... Espero dute esleitzea urte amaierarako edo datorren urteko hasieran eginda egotea. Obra bukatzeari buruz ez zen ezta hitz egin ere. Asko izan dira salaketak, prentsa artikulak, informazio orriak... gehienok gai honen inguruan ondo jantzitako iritzia daukagu, Eusko Jaularitzaren bere osotasunean nahiko gaizki usten duena.
- **GASTEIZKO KLIMATIZAZIOA** (4. Solairua). Antza araudiak ez du aire kanalizazioen birkokapena baimentzen; hori dela eta, egungo arazoa konpontzeko Familia Epaitegitik eta Talde Psikosozialetik gertu dauden bulegoak berritzeko obrak aprobetxatuko dituztela diote.
- **JAZARPEN ETA LAGUNARTEKO GATAZKAK.** Zirriborroari alegazioak aurkeztu ostean, iragan urtean ez zen inongo aurrerakuntzarik egin gai honetan. Oraingoan utsetik hastea proposatzen dute. Eusko Jaularitzako Justizia Saileko Prebentzio Zerbitzua, Justizia Ministerioa eta BJKN koordinatzeko borondatea omen dago, eragile ezberdinak murgilduta dauden kasuei aurre egite aldera. Funtsezkoa da gutxienez idazkari batek (epaileak edota fiskalak) parte hartzen duen auziak jorratzeko bide bat ezartzea. Osterantzean, duela gutxi Bizkaiko Auzitegian jazotakoa bezalako zentzugabekeriekin egin genezake topo berriz ere.
- **IRUN:** LAB-ek zuzendariari jakinarazi zion uholdeak direla eta konpondu gabeko hainbat arazo dirautela, besteak beste:
 - Erregistro Zibileko paper sorta abortiboak, artxiboan gertaturiko inundazioaren ondorioz kaltetuta ia irakurtezin amaitu zuten, eta berritu beharko lirarteke.
 - Hezetasun usaina areagotzen duen lizuna hormetan eta lurzoruan, hezetasuna kentzeko gailuak instalatzea eta gunea gehiago berotzea eskatzen dugu, lantoki honen klimatizazio eskasa arintzeko. Artxiboko armairu baten zorua, hainbat ur sarrera direla eta, erabat hondaturik dago, haren mugikortasuna zeharo zailduz. Artxiboaren argitazpenari dagokionez, araudia egokitzeko zain dagoela gogorarazi diogu.

- Erregistro Zibileko lanpostuen berrantolaketa, lanpostuen behin betiko birkokapenaren zain gabiltza. Halaber, zuzendaria gutxi barru udalarekin bilduko dela jakinarazi zigun, merkatal zentroak eragiten dituen iragazpen arazoak jorratzeko.
- **LARRIALDI PLANAK.** Gai hau luzaro egiteke dago. Bere garaian honako hau adostu zen: Bulego Judizial Berria ezarriz joan ahala, larrialdi planak egingo ziren. Honela egin izan da baina ez da erabat ezarri egin; hainbat tokitan ez dira larrialdi taldeak sortu, simulakroak egin behar dira... eta Donostian zein Bilbon, Bulego Judizial Berria iritsi ez denez, ez daukagu Larrialdi Plan eguneraturik, noski. Hau guztia berehala aldatuko ez denez, Larrialdi Planen eguneraketa kanpoko empresa bati kontratatzea baloratzen ari dira. Momentuz, dakigun gauza bakarra da ia guztia egiteke dagoela, eta nola jokatu behar den jakiteko telefonoak eta kontaktuak batzen dituzten jarraibide batzuk helaraziko dituztela, egungo planak berrikusita egoten diren arte.

Ikusten duzue, plangintza ugari baina batek daki noiz mamituko diren. Oraingoz, baieztatu dezakegun bakarra da azken urteotan hainbat kontu dauzkagula burutu gabe eta arazoak honako hauek dira, besteak beste:

- Prebentzio Zerbitzuan langile gutxi egiten dute lan. Aholkulari juridikoa izendatu berri dute -urteak baitaramatzagu figura hori gabe- baina oraindik zerbitzuburuaren lanpostua betetzea falta da hutsik baitago 2012ko uztailetik. Langileek bidalitako gertakariak artatzeko eta eguneroko hainbat eta hainbat konturi jarraipena egiteko gaur egun dauden bi teknikariak urriak badira, zer esanik ez eraikin judizial guztietan hain beharrezkoa den prebentzioa ganoraz egiteko; argi dago ezinezkoa dela gaurko pertsona kopuruarekin.
- Jon Arturo Uriarte aurreko Justizia Administrazioaren Zuzendariaren jokabide deitogarria, baita lan osasunari dagokionez ere. Gai hauetaz ardura duten bi zuzendaritza bere gain hartzen zituen Uriartek -Justizia Administrazioaren Zuzendaritza eta Justizia Modernizatzea-, gaur egun Isabel Gabrielen eta Amparo Lópezen esku daudenak, hurrenez hurren. Geroak esango digu eguneko Justizia Sailak zer egin duen eta zer ez legeak ezartzeko eta justiziako langileen osasunerako eta segurtasunerako lan-baldintzak hobetze aldera.
- Justizia Administrazioan jarduten duten beste kidegoekiko koordinaziorik eza. Azken urteotan LAB ekin eta ekin ibili da eskatzen foro egoki bat zeinean gure lan osasunean eragina duten eta aldi berean epaileekin, fiskalekin eta letraduekin zerikusia duten kontuen inguruan lan egin dezagun. Hots, kidego horietako ordezkari eskudunekin batzartzea gai garrantzitsuak jorratzeko, esaterako, lanaren antolaketa, edo jazarpen kasuak, edo pertsonen arteko gatazkak.
- Justizia Administrazioan lan egiten dugun kolektibo guztiak Eusko Jaurlaritzaren menpeko ez izatearen ondorioak. Antolaketa kontuetan dauzkagun arazoetako parte handi bat konpontzen errezagoa izango litzateke, letradu judizialak erkidegora transferituko balituzte. Gehienbat Fiskaltzan jasan behar izaten dute langileek berrikuntzetara egokitzearen ia aurkakoa den egitura zurrina; horren ondorioz, zailtasun ugari topatzen ditugu espediente elektronikoa ezartzerakoan eta aurrerapen teknologiko hori ezinbestekoa da esaterako giharretako eta hezurdurako lesioak sahieste aldera. Epaileekin berdin antzera gertatzen zaigu: estatuak egun dagoen moduan eratuta segituz gero jarraituko dute izaten estatuko botera ikutu ezina.
- Erakundeek ez dute inolako borontaterik merezi duten begirunea emateko lan osasunari eta arriskuen prebentzioari. Oro har, estatu espainarrean kontzientzia eskasa dute gai horiekiko eta

inguruko estatuetatik oso urrun gabilta. Estatistikek ez dute islatzen errealitate gorria: heriotzak eta lesio larriak ez dira gertatzen soilik lan-istripuetan, gaixotasun profesionalek biktima zerrenda luzeagoa uzten baitute.

Agintariak, erakundeak eta enpresak oker dabilta: laneko segurtasun eta osasunean egindako gastua ez da alferrikakoa. Aldiz, inbertsioztat hartu beharko lukete. Lehendabizi, heriotzak eta egoera traumatiko ugari ekiditeak jendarte osoa konprometitu beharko lukeen helburua izan beharko lukeelako, politikoki zuzena den zer horretatik haratago. Eta bigarrenaz, ekonomia hutsagatik: zenbat eta diru gehiago gastatu prebentzioan, orduan eta gutxiago ordaindu beharko da bajetan, kalte-ordainetan, konponketetan eta egokitzapenetan. Dena den, deigarria da egiaztatzea administrazio publikoa dela arau-urratzaile handiena eta legeari gutxien egokitua dagoena. Eta are eskandalagarria dena, administrazio publikoak jakin badaki ez dutela zigortuko, Lan Ikuskaritza, zigortzeko ardura duen atala, haren egiturakoa baita.

Edonola ere, LABek ekingo dio behin eta berriz laneko segurtasun eta osasunari dagokionez administrazioak dituen obligazio ugariak bete ditzan eta, hala behar izanez gero, salatuko dugu arau urraketa.

2017/10/02